


Euskal liburugintza 2000

JOAN MARI TORREALDAI



ARGITALETXEAK



TITULUAK ETA TIRADAK



NOBEDADEAK / BERRARGITALPENAK / ITZULPENAK



HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA LIBURUAK



HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



LITERATURA

*Egunen gurpilean*JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

128

urtarrila
otsaila
2002



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Liburuak

Euskal liburugintza 2000 ► 11
JOAN MARI TORREALDAI

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 123
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jalgi.com

2002ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary




Basque Bibliography 2000

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes the catalogue of all the books published in Basque during 2000, together with an appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language. In 2000, 1,519 books were published in the Basque language, 70 less than in the previous year. Most of these publications are school books (33,5%), followed by children's and young people's literature (24,5%), books on human and social sciences (16,8%) and literature for adults (16,8%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. ► JOAN MARI TORREALDAI



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ► *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 128. zenbakia da eta 2002. urteko lehenengoa.


Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* sailari dagokio zatirik handiena. Izan ere, Joan Mari Torrealdaik *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren il-do beretik, 2000. urtean euskaraz argitaratutako liburuen katalogoa aurkezten digu. Aurten, gainera, 25 urte betetzen ditu Torrealdaik *Jakin*-eko orrietan euskal liburuen berri ematen.

Torrealdaik urtero egiten duen lana ez da mugatzen, dena dela, liburuen zerrenda hutsa eskaintzera. Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du. 2000ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen aniztasuna eta argitaletxe emankorrenen aipamena; bigarrenik, argitalpenaren zifren inguruan, argitaratutako tituluen zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearren, 2000. urtean 1.519 liburu argitaratu ziren, 1999an baino 70 gutxiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 509 (produktzio osoaren %33,5); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (371, %24,5), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (256, %16,8) eta hel-

duen literaturakoak (256, %16,8). Azterketaren ondoren 1.519 tituluon zerrenda osoa dator.


Egunen gurpilean sailean sinadura berri bat dugu: Laura Mintegi idazleak heldu dio literatura atalari. Kultura, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko atalak, iaz bezala, Joseba Balerdi, Iñaki Martinez de Luna eta Amatiñok jorratuko dituzte, hurrenez hurren. ♪

Liburuak



JOAN MARI TORREALDAI
Euskal liburugintza 2000

11



Euskal liburugintza 2000

b

J O A N M A R I T O R R E A L D A I

b

2 5 urte badira *Jakin*-eko orri hauetan euskal liburuen berri ematen hasi nintzena. 25 urte luze edo labur, nahi den bezala. Atzo zela iruditzen zait niri neuri.

Oso gogoan dut zergatik hasi nintzen. Hutsune bat betetzearen. *Euskal Idazleak*, *Gaur* lana prestatzen hasi nintzenean jabetu nintzen zein informazio gutxi eta eskasa genuen euskal produkzio idatziaren gainean, azterketa soziologikoa egin ahal izateko ezdeusa. Juan San Martinek egiten zuen titulu bilketa baliagarria zen, baina ez nahikoa. Aurretik ibilia zen Bitaño ere. Bestalde, fitxa bibliografikoa bera ere osatu beharra zegoen, eta batez ere gaiak zehaztu behar ziren, zer idatzi eta kaleratzen zen jakin behar genuen. Gauza bat baita *zenbat* publikatzen den eta beste bat *zer* den argitaratzen dena. Orduko nire lan-hipotesia zera zen, euskarazko liburuak neurri batean euskal gizartea islatzen duela. Edo beste modu batera esanda, liburugintza ez dela jarduera marginala, gizarte errealean txertatu gabea, lau txoro eta bost egoskorren ekintza. Liburugintzaren eta gizartearen lotura hori erakusten saiatu naiz urtea joan eta urtea etorri. Abiapuntuko intentzio horren arabera moldatu dut bai informazioa biltzeko metodologia eta bai liburugintza aztertzeko modua: gaimultzotan sailkatu, gaien arabera aztertu, jatorriaren non-

Joan Mari Torreal dai Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziatua da.

dik norakoa argitu, euskaraz ala erdaraz sortua den, nobedadea den ala berredizioa, etabar.

Orduko hutsunea gaur ere hutsune da, nahiz eta informazio askoz gehiago eduki badugun gaur. Uste dut gaurkotasuna eta zeregina baduela liburu ekoizpenari buruzko datuak modu sistematiko eta profesional batean bildu, fitxatu, sailkatu, aztertu eta publikatzeak. Bost egiteko dira, elkarren osagarri baina diferenteak. Bostak dira eginbeharrekoak, nire ustez.

Nik ala beste norbaitek egin, hori da gutxiena. Eginbeharrekoak dira, hori bai. Nik neuk aurtengoarekin amaitzea espero nuen, eta esan ere publikoki halaxe esana nuen. Baina kirolzale askori gertatzen zaion gauza bera gertatzen zait nonbait, ezin abandonatu «ofizio/afizio» zaharra. Jarraitzekotan naiz, beste inork bere gain hartzen ez badu behintzat.

25 urte daramatzat lan honetan, eta hasierakoan horrelakorik pentsatzen ez banuen ere, geroztik, 90eko hamarkadaren hasiera hartan, mendea ere aurrera zihoala eta, hogeigarren mendea osatu bitarteko liburugintza burutzeko konpromisoa ezarri nion neure buruari. Oraingo emanaldi honekin burutzen dut konpromiso hori, baina tira, ni segitzeko prest.

Oraingo emanaldi honetan 2000. urteari dagokio txanda, hogeigarren mendeko azkenari hain zuzen ere.

Jarduera editoriala

2000. urteko 1.519 titulu bildu ditut hemen, 161 ekoizleren artean argitara emanak.

Begien bistakoa da edizio-agente asko direla 161, 1.500eko liburu produkzio hori egiteko. Holakoetan, eta gaurkoan ere bai, edizioaren atomizazioaz eta barreiaketaz hitz egin daiteke. Eta ahuleziaz ere bai, zergatik ez. Mila eta bostehungo ekoizpen hori guztien artean zati berdinetan banatuz gero, tarta bailitzan, ez zaio hamarna liburu tokatzen editore bakoitzari. Baina jakin badakigu editore batzuek titulu ugari ateratzen dutela eta beste batzuek

gutxi, edo bakarra. Zertan datzan edizioaren ahulezia? Asko, gehiegi, direla titulu banaka batzuk ateratzen dituztenak, editore gisa sendotasunik gabe, liburuaren eta idazlearen promoziorako indar gutxikoak direla.

Urtean 20 titulutik behera ateratzen duenak ez du editore gisa indar handirik. Bada, 15 ez beste ekoizle guztiak daude situazio horretan, 146 guztira. Baina multzo horren barruan ere graduak eta mailak daude. Gehien-gehienak urtean liburu bakar bat atera dute: alegia, 83 ekoizlek 83 titulu. Eta beste askok bi edo hiru. Hiru titulu edo gutxiago atera dute 124k, edo modu adierazkorragoan esanda, %77 ekoizleren artean ekoizpenaren %12 atera dute.

Aipatutako ekoizle txiki hauen artean, eta handiagoen artean ere bai, denetik dago, esan nahi baita, elkarteak daukela, talde profesionalak, erakunde publikoak, udaletxeak, fundazioak, aldizkariak, eta nik dakit ba zer gehiago.

Laburbilduz, honela sailka genezake jatorrian zein jardunbidean zein helburutan desberdin diren editoreen produkzioa: 2000ko argitalgintzan edizio ez komertzialak liburutik %10,7 suposatzen du; edizio publikoak, %18,2; kanpoko argialetxeek, %15,6. Kopurutan argialetxe gutxi izanik ere, eragile editorial pribatu komertzialen eskuetatik atera da produkzioaren %71. Hortaz, edizioaren ia %30 edizio ez komertzial eta publikoaren esku dago.

Ekoizle txiki-txikiak badaude, eta ugari, baina haundi-maundirik ez. Euskal argialetxe handiena ere, Elkarlanean, altuenean ere erdi mailakoa edo txikiagoa da Europako artean. Handi eta txiki badela esan genezake, hala ere. Urtean titulu bat kaleratzen duenarentzat handia, oso handia, bide da 200 titulu kaleratzen dituen. Handi ala ez horren handi, eman dezagun lehen hamabien zerrenda, titulu kopuruaren arabera neurturik.

Lehen hamabiak

Ondoko taulakoak dira titulu gehien kaleratu dituztenak 2000. urtean. Ez da guztiz egia. Tartean egon beharoko lukete Eusko Jaurlaritza, EHU edo HABE, baina horiek aparte uzten ditugu, publikoak direlako. Zehatz eta me-

hatz esanda, edizio pribatuko 12 eragile nagusiak dira zerrendako horiek.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkarlanean	79	154	233	15,3
Elkarlanean/ Ikastolen Elkartea	24	129	153	10,0
Ibaizabal	60	94	154	10,1
Erein	38	63	101	6,6
Ttarttalo	82	2	84	5,5
Zubia	36	34	70	4,6
Giltza	35	3	38	2,5
Susa	31	5	36	2,3
Hiria	30	0	30	1,9
Alberdania	18	6	24	1,6
Gero-Mensajero	23	0	23	1,5
Aizkorri	14	7	21	1,4
<i>Guztira</i>	<i>470</i>	<i>497</i>	<i>967</i>	<i>63,6</i>

Hamabi handienen artean ekoizpen osoaren %63,6 ahalbidetu dute. Askok ala gutxi den ez dakit, agian ez bata eta ez bestea, baina ez zait iruditzen kontzentrazio handiegia dagoenik. Honek esan nahi luke editoreen %7,5en artean ekoiztu dela tituluen %63,6. Urte berean, Katalunian, editoreen %4,8k atera du liburuen %54,4; eta Galizian 7 editoreen artean atera dituzte tituluen %52,5.

Urtean zehar kaleratu ohi diren titulu horietako asko ez dira nobedadeak, berrargitalpenak baizik. Editore handieneko produkzioaren ezaugarria da, hain zuzen, berrargitalpenak gaina hartzen diola nobedade edo aurreneko edizioari, ikasmaterialgintza tartean denean modu oso nabarmenean, gainera.

Beritasun bat bada zerrenda honetan, Ikastolen Elkartea. Zerrendan egoteko arrazoia hain zuzen ere zera da, Elkarlanean argitaletxearekin batean, koedizioan hain zuzen ere, ateratzen dituela ikasmaterialak. Koedizioz ari direnetik, 1999tik, bi ISBNrekin azaltzen dira elkarrekin egindako liburuak, eta horregatik jaso ditut zerrendan era konpartitu horretan.

Zerrenda horretan garbi ageri da, bestalde, kanpoko argitaletxe baten adar edo taldekide diren argitaletxeen indarra edo pisua. Poztekoa da kanpokoaren presentzia eta

ekarpena, zertan esanik ez da. Baina ahuldade-puntu bat ere badu honek eta da garai zailetan erraz abandona dezaketela lantegia. Gure kasuan, gainera, kontuan izanik kanpoko editore gehienak ikasmaterialgintzan ari direla, bi ahuldade-puntu gehiago ere baditu zerrenda honek: kanpokoan kurrikulumak kanpoan egosiak izatea; eta, bi, bertoko ekipoak ez indartzea behar beste.

Euskal edizioaren ahuldadeak beste alde batetik ere kezkatzen nau. Aurrenekoen zerrenda ikusi eta berehala antzematen da argitaletxerik handienek ikasmaterialgintzan oinarritzen dutela gehienbat euren indarra. Egia da horri Elkarrentzat, Ikastolen Elkatearentzat, Ibaizabalentzat eta Erein, Zubia edo Giltzarentzat. Zer gertatuko litzateke hauekin guztiekin testuliburuak legea aldatuko balitz, ezina ez dirudiena? Beherapen libre jarri da indarrean oraingoz. Baina zurrumurruak badabiltza lege ingelesaren antzekoren bat proposatuko ote den. Testuliburuak iraunkortasun handiagoa eskatzen dute batzuek, testuliburuak doantasanaren eskaria ez dabil aparte. Holako legeren bat baletor, zer? Zenbaitek gorriak pasatu beharko lituzketelakoan nago. Eta euskaraz editatzeari ez ote lioke inork utziko?

Ēskaintza editoriala

Titulu kopurua

Zenbat titulu publikatu dira 2000ko lege-gordailuarekin? Ez da erraza jakiten. Nik neuk oraingoz 1.519 titulu bildu ditut. Baina seguru nago, han eta hemen miatuz joan ahala, kopurua aldatu egingo zaidala. Iazkoan gertatu zaidan bezala: 1.523 titulu zirela nioen orduan, eta 1.589ra iritsi naiz gero urtean zehar osatu ditudanekin. Beste hainbeste gerta dakidake 2000koarekin ere. Ez ditut, horregatik, zifrak eta kopuruak sakralizatzen.


Ez sakralizatzea gauza bat da eta irizpideetan huts egi-tea beste bat. Apirileko liburuaren egunaren inguruan agertzen diren zifrak eta kontuak bezala. Edozein zifra ematen da, behin baino gehiagotan bereiztu ere egin gabe Eus-

kal Herrian ateratzen den liburua eta euskaraz ateratzen dena.


Metodologian ere egon liteke diferentzia. Holakoren bat da niri ISBNko agentzia espainiararekin gertatzen zaidana. Argitaletxeek bidaltzen dizkioten orriez fidatu behar du ISBNko agentziak, beste kontrasterik gabe. Nik, gehienetan edo maiz, liburua bera eduki izan ohi dut eskuetan. 2000. urteari dagokion liburu kopurua, agentzia espainiararekin arabera, 1.428 tituluz osatua da. Bidenabar esanda, 178 iaz baino gehiago. Baina nire zerrendan baino 91 titulu gutxiago, ez dakit zergatik. Zifratan ez baina titulutan, gainera, askoz ere handiagoa da diferentzia. Izan ere, bi titulu bezala kontatu ditu agentziak Elkarlanean eta Ikastolen Elkartearen artean koedizioz bideraturikoak, 153 guztira. Lehen Elkarlaneango ISBNa zeramaten, orain baina, horrek sortu du nahasketa.

Tituluak goitik

90eko hamarkadan titulu produkzioaren batez bestekoa 1.200 titulu urteko da. Hortik gora azken pare bat urtetan. Mila eta bostehun inguruan gabilta orain. Aurten, hala ere, iaz baino 4,4 puntu gutxiago. Azken urteotako maila horretan mantenduko dela ematen du, igoera ez baita artifiziala izan. Eboluzioaren indizea begiratzuz ongi ikusten da hazkunde negatiboko laugarren urtea dela, baina txikiak eta garrantzi gabeak izan direla gehienak, hazkunde positibokoak baino eskasagoak.



Titulu produkzioa urtez urte



Tituluen eboluzioaren indizea

Tiradak behera

Ez daukat berri zuzenik eta ezin ba jakin zertan den justu-justu titulu bakoitzaren tirada edo ale-kopurua. Denek diote beheranzko joeran sartuta daudela. Baina ez dakigu zein tamainatan dauden gaur eta egonkortasun puntuan ote dauden edota aldapa behera egin behar duen oraino, eta noraino.

Iaz aipatu nituen *Precisa* azterketa etxeak zabaldutako zifrak, niretzako altuegiak. Aztertzaile hauen arabera batez besteko tirada 3.453 zen 1998an. Nahi bai. Joxemar i Sorsek aipatzen zuen batez bestekoa uste dut errealitateari egokituagoa dela, 2.000 ale ingurukoa, alegia. Ikasmaterialak eta haur eta gazteentzako liburuak hortik gora lebilzke, eta zifra horretatik behera liburu soziokulturala eta literatura. Editorialen laguntza banu, gustura ekingo nioke tiraden ikerketari, erraz egin daitekeela uste baitut.

Gureak ez baina beste batzuen zifrak ezagutzen ditugu: Frantzian tituluko 8.262 ale botatzen dira; Italian, 5.132; eta Espainian, 3.760 ale. Bada alderik kultura bate-tik bestera. Frantzian titulu bakoitzari Espainiakoaren bi

halako probetxua eta gehiago atera ohi zaio. Harigarria eta inbidiagarria da hori.

Kopuru diferentzia horiek argigarriak dira edizioaren «funtsa edo egia» ezagutzeko. Baina kezka ez dator diferentzia horretatik, baizik eta ale kopuruak duen etengabeko behera-joeratik. Titulutan gora doa liburugintza, bai, baina ale kopurutan behera. Frantzian, esaterako, 1980tik hona, 14.702 aletik 8.262 alera jaitsi da. Urte asko daude tartean, bai, baina izugarria da jaitsiera. Eta horrek biziki kezkatzen ditu editoreak. Espainian zifra gorenak beti izan dira apalagoak, eta jaitsiera ere ez da hainbestekoa, baina izan bada, eta ez txikia: 1990ean titulu bakoitzeko 5.104 ale atera ohi ziren eta hamar urte beranduago titulu batek 3.760 ale ditu.

Zer dakar honek? Deskuidatuz gero titulutan irabazten duguna edo gehiago gal dezakegula aletan. Eta hortaz, eskaintza editoriala hazkunderik gabekoa izan daitekeela. Espainiako kasua lekuko: titulu gehiagorekin ale gutxiago atera ohi da azken urteotan; 1998an 256.569 ale atera ziren Espainian, eta 2000. urtean 233.962 ale atera dira, nahiz eta bi mila titulu gehiago kaleratu. Azken batean, titulu gehiago bai, baina eskasagoa da eskaintza editoriala. Bistan da gero eta probetxu gutxiago ateratzen zaiola liburu bakoitzari, guztion kaltetan.

Berriz diot ez dakigula zehatz-mehatz zertan garen euskal liburugintzan, eta pena da. Datu zehatzen faltan, inpresioak dira nagusi bazterretan.

Tiraden murrizketa liburuaren krisiarekin, euskal liburuaren beherakadarekin lotuko du agian norbaitek. Edozein aitzakia aski izaten baita alderdi negatiboak aupatzeko. Libelo edo Garizumako predikuen tonu handiusteko eta guzti. Azterketen lekuan ikuspegi kritiko eta apokaliptikoa bada, hobe. Horrek du orain estimazioa. Inpresio eta bizikizun subjektiboak errealitate objektiboen pare altzatzen dituzte gainera, norbere frustrazioak ere gizarte porrot bihurtzen dituzte. Titulu asko ateratzen badira, puztuegia dago euskal liburugintza. Tiradak murrizten badira, hondamendi bidean dago euskal liburugintza. Durangon norbere liburu saltzen ez bada, ez da libururik

saltzen Durangon. Euskal edizioak, berezi-berezia, bitxia, txikia eta politta ez bada, ez du batere interesik; normala ez bada, marginala da. Beti gaizki.

Zorionez edo zoritxarrez, bietatik gainera, euskal irakurlekoa eta euskal edizioa normalizatuta dago. Eta normalizazioak gure kasuan gauza positibo asko esan nahi du, baina negatiborik ere bai. Egoera normalizatu batean «normala» da, eta ohikoa, esate baterako, titulu bat Durangon bost mila ale saltzea, eta gero tantaka. Erdal liburua ere horrelaxe saltzen da, kolpeka, inpultsoz, promozioak lagunduta. Horixe da *best seller*-aren logika. Hori ez da txarra, hori ez da krisia. Horrelaxe da, eta kitto.

Tiraden murrizketak seguru baduela irakurketaren krisiarekin zerikusirik, seguru. Baina arrazoi askoz gehiago ere badaude tiraden murrizketa esplikatzen orduan, teknologiarik dagozkionak, bai fotokonposaketan edo inprimaketan eta baita ere eskariak eta banaketa antolatzen orduan. Argitaletxeen inbertsioen errotazio etengabeak eta finantziario-kostuen apaltzeak ere badu zeresanik. Hori bai, tiraden murrizketak badu liburuarentzat ondorio zuzen-zuzen eta txar pare bat: titulu berria ez da iristen ahal saltoki guztietara; eta bi, fondoko liburua presentzia galduz doa egunegun, etengabeko nobedadeek agintzen duten merkatuan.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Liburugintza batetik bestera aldatu egiten dira balio hauek: batzuetan nobedadeek pisu handiago dute eta beste batzuetan berrargitalpenak du indarra. Hona erkaketarako datu batzuk:

<i>Nazioa</i>	<i>1. edizioa</i>	<i>Berrargitalpena</i>	<i>Guztira</i>
Frantzia	42,7	57,3	49.767
Italia	61,5	38,5	48.201
Alemania	75,3	24,7	80.779
Espainia	75,0	25,0	62.224
Euskal Herria	67,0	33,0	1.519

Zer azpimarratu asko legoke hemen, baina ez gara luzatuko. Ezin seinatu gabe utzi, baina, Frantziaren kasua.


Berrargitalpenak sekulako indarra du Frantzian, %57 paisea. Konparazio baterako esan genezake, gure liburugintzan, ikasmaterialetan bakarrik dugula guk berrargitalpena nobedadeen saila baino indartsuago: ikasmaterialak %60an berrargitaratu egiten dira. Baina literatura eta holarakoak %30aren bueltan dabilta. Inbidiagarria da frantsesek tituluari ateratzen dioten zukua, merkatu berrietan bitziza berria emateko daukaten abilezia. Titulu bat, izan ere, ez da lehen formatuan agortzen: azal gogorretik bigunera pasa daiteke, hemendik poltsiko liburu izatera, eta hemendik irakurle-klubera edo okasiozko merkatu paralelora.

Frantsesen eredu editorial hau komeni zaio euskal liburuari. Nobedadeek gutxi irauten dute jendearen eskura aise iristeko moduan. Hilabete gutxitan liburuaren egin du, idazle jakin batzuen lan jakin batzuk kenduta. Beraz, zer egin? Ahal dela, beste bizialdi bat eman tituluari, beste itxura bat eman, beste zirkuitu batzuetan sartu, eskaintzak berri, zer dakit ba nik. Nola egin? Esatea egitea baino errazagoa dela esango du editoreak. Eta halaxe da. Internet dirudi orain Lourdes berria, arazo guztien soluzio magikoa. Interneti dagokion guztia ondo dago, baina aterabide tradizionalerik ari naiz orain, Frantzian erabili ohi diren horiek.

Esperantza-argi txiki bat piztu zait «Abarka»-rekin. Abarkak kalea zapaldu nahi du, azokak, okasiozko liburuaren zirkuituak. Abarkak aurrean duena ez da mauka, baina bai aukera. Izan ere, euskal liburugintzak badu gaur egun fondo handi bat, katalogo bizian eta deskatalogatua. Titulu horiek, behin liburu dendako bizialdi geroz eta laburragoa pasatu ondoren, erretiratu egiten dira, eta gutxi batzuk liburutegietan ezkututzen dira. Beste guztiak paper birrindu bilakatu ohi dira. Konbentziturik nago zer berreskuraturik asko dagoela desagerturiko liburu horien artean. Bat edo beste berreditzen da, bai, baina zenbat? Eta beste guztiak? Kultura batek ezin ditu horiek ahaztu eta paperontzira bota, are gutxiago gurea bezalako transmisio ahuleko kultura txiki batek.

Erronka zaila du aurrean Abarkak edo bide horretatik abiatu nahi duen beste edozeinek: merkatu berria irekitzea, eta merkatu hori elikatzea. Gurean, egia esan, oka-


siozko liburuaren merkatuak ez du bizitza propio handi-



rik. Sekulako garapena du Frantzia, hemen ez. Jendearen ohitura berriak sortu egin behar dira, hortaz. Eta gainera, jendearen premiekin eta gustuekin asmatu, merkatua hornitu. Bada lanik.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Ondoko grafikoan garbi ikusten dugu urteko produkzioan parte-hartze positiboa izan duela berrargitalpenak. Eta negatiboa, aldiz, lehen argitalpenak. Urteko indizea ikusterakoan han azalduko zaigu bakoitzak zenbat irabazi




edo galdu duen. Nobedadeek eboluzio negatiboa izan dute, 10,8 puntu jaitsiz. Horrek esan nahi du 124 nobedade

gutxiago atera direla. Positiboa izan da berrargitalpenaren portaera, 12,1 puntu edo 54 titulu gehiago.

Nobedadeak

Egonkortasuna ematen dio berrargitalpenak liburgintzari. Nobedadeek gorabehera gehiago izaten dituzte. 90eko hamarkadan lau bider izan du hazkunde negatiboa. Eta behin bakarrik berrargitalpenak. Urtez urte, emeki-eme-



ki gora egiten badu produkzioak neurri handi batean berrargitalpenari zor zaio, eta ez urteko produkzio berriari.

Nobedadeen hazkunde indizeak argi azaltzen du esan duguna, eboluzio gorabeheratsua izan duela urteko liburu berriak hamarkadan zehar. Urte batzuk nahikoa beltzak izan ditu. Aurtengoa ere aski negatiboa da.

Berrargitalpenak

Hamarkada osoan jaitsialdi bat bakarra izan du berrargitalpenak, eta bera txiki-txikia, aintzat hartzea ere merezi ez duena. Igoerak bai izan direla ikusgarriak. Aurtengoa ere balio positiboak bildu ditu. Ikus dezagun, ondoko taulan, 2000ko berrargitalpenen mailaketa:

Lehen argitaraldia.....	1.031 titulu
Bigarren argitaraldia.....	158
Hirugarren argitaraldia.....	86
Laugarren argitaraldia.....	61
Bosgarren argitaraldia.....	30
Seigarren argitaraldia.....	36
Zazpigarren argitaraldia.....	33

Zortzigarren argitaraldia.....	36
Bederatzigarren argitaraldia.....	19
Hamargarren argitaraldia.....	11
Hamaika argitaraldi edo gehiago.....	34
Hainbatgarren berrargitaraldia.....	45

Berrargitalpenaz ari gara, baina zehatzago hitz eginda, berrinprimaketaz hitz egin beharko genuke, gehien-gehienak berrinprimaketa direlako, hots, aldaketarik gabe egingdako argitalpenak. Liburu batek, berredizio kontsideratzeko, formatuan, bilduman edo testuan aldaketa behar du.

1a 500 dira edizio berria izan duten liburuak aurten. Agi denez, horietako gehien-gehienak urteko argitaraldi bakarra izan dute, eta horietako gehienak aurreneko ediziotik bigarrenera igaro dira.

Baina bigarren argitaraldian hiltzen ez den liburu asko dago, zorionez. Aurtengoan, hiru eta hamar edizio bitartean 300 titulu daude. Are esanguratsuagoa da hurrengo mailaketa: 45 tituluk 10 argitaraldi edo gehiago izan dute.

Argitaralditan gailurrean dabilta, urtero bezala, *Kut sidazu bidea*, *Ixabel* eta *110. Street-eko geltokia*, 20tik gora. Hogeian dago *Babilonia* eta hortik behera datoz *Istanbulen elkartuko gara* (18 argitaraldi), *Desagertutako emakumea* eta *Bi letter jaso nituen...* (16na argitaraldi).

Urte berean edizio bat baino gehiago izan dituztenak ere badira hamar bat titulu. Bi edizio izandakoen artean daude: *Kittano*, *Babilonia*, *110. Street-eko geltokia*, *Helena eta arrastiria*, *Ostiralak*, *Indiana Jones-en zamarrak*. Hiru liburuk lortu dute urte berean hiru argitaraldi izatea: *Ostegunak*, *Ai Ama* eta *Eta emakumeari sugeak esan zion*. Bitxia da Jon Arretxeren *Ostegunak*-en kasua: 1998an 5 argitaraldi izan zituen, hurrengoan 4 eta hirugarrenean 3 izan ditu. 2000. urtean 4 edizio izan duen bat badago, bakarra: Julen Gabiriaren *Connemara gure bihotzean*.


Liburuaren arrakasta neurtzeko neurgailu egokia da berrargitalpena, ez dago dudarik. Hala ere arrakasta hau ez da plaza librean lortua, irakaskuntzako zirkuituan baizik. Berrargitaraldi ugariako titulua beti ez bada ia beti irakaskuntzan erabilia da.

Jatorrizko eta itzulitako liburuak

Jatorrizko eta itzulitako tituluak aurreneko aldiz ateratzen diren liburuen sailean aztertzen ditugu hemen. Nobedadeen barruan zein tendentzia nagusitzen den jakiteko balio du azterketak. Bidenabar esan dezagun, liburu berrak argitaratuetan proportzionalki jatorrizko titulu gehiago ageri ohi dela. Beste modu batera esanda, jatorrizko nobedade batek berreditzeko proportzio hobea du, itzulitako liburuak baino aukera gehiago. Aurten, berrak argitaratu diren liburuen %76,8 da jatorrizkoa eta %23,2 itzulitakoa.


Nobedadeen kapitulura itzuliz, 1.019 tituluz ari gara, eta horietatik %73,7 da jatorrizkoa eta %26,3 itzulitakoa.

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
1990	61,-	39,-
1991	57,7	42,3
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6



1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7
1999	73,9	26,1
2000	73,7	26,3


Jatorrizko liburua eta itzulpena nobedadeetan



Esana dugu arestian nobedadeek oro har behera egin dutela aurtan. Beherakada horretan, ordea, jatorrizko liburuak eta besteak ez dute parte-hartze berdina izan. Gehiago galdu du jatorrizkoak, 11 puntu. Ia-ia ehun titulu gutxiago da euskaraz pentsatu eta idatzi dena. Itzultako liburuak ere galdu du, baina 7 puntu bakarrik, 20 bat titulu.

Jatorrizko liburua

90eko hamarkadan zehar maiz samar gertatu da jatorrizko liburuaren hazkunderik eza, aurreko grafikoan ikus



daitekeen bezala. Eta beste horrenbeste gertatzen da itzultako liburuari dagokionez ere. Horrek ondoko hau azaltzen du, produkzioaren hazkunde prozesuan nobedadeek baino zati handiagoa hartzen dutela liburu berargitaratuek.


Itzulpena

Ibilbide gorabeheratsua du liburu mota honek 90eko hamarkadan barrena. Maiz samar izan du zeropeko hazkunde itzulitako nobedadeak.

Kapitulu hau itxi aurretik aipatu gabe ezin utzi beti egin ohi den galdera. Gehiegi itzultzen al da euskarara? Gutxiegi itzultzen al da? Modu egokiagoan formulatuta, galdera litzateke ea proportzio egokia den jatorrizko liburuaren eta itzulitakoaren artean daukaguna. Aurtengo da-tuetan, produkzio osoa aintzat hartuta, %75 dagokio jatorrizko liburuari eta %25 itzulitakoari. Kaleratu diren liburuetan lautik bat litzateke itzulitakoa. Aurreko urteetan liburu mota honek proportzio handiagorik izan du. Bestalde, ez da ahaztu behar Frantzian zein Espainian askoz txikiagoa dela itzulitako liburuaren proportzioa. Baina hau ere normala da.

Gure liburugintzan ez zait iruditzen itzulitako liburuaren pisua exajeratua denik, nahiz eta ingurukoekin konparatuta goitik ibili. Bidezkoa da horrela izatea, txikia baita gure hiztun komunitatea. Ez dakit baina, inoiz pent-satu izan dut zenbat eta txikiagoa izan liburugintza hainbat eta handiagoa behar duela itzulpenak. Bai, baina non daude mugak?

Gaiak



Zertaz dihardute liburuok? Galdera horri erantzun ahal izateko sailkatu ohi dira liburuak gai multzo jakin batzuetan, eta horrela badakigu lerro tematiko nagusiak zeintzuk diren. Lehen hurbilketa honek ikuspegi nagusia eskaintzen du. Ondoren bakarrik etor daiteke sail bakoitzean sakontzea.

Gaien arabera

<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>
Hezkuntza. Irakaskuntza	509	33,5
Haur eta gazteentzako liburuak	371	24,5
Giza/gizarte zientziak	256	16,8
Helduen literatura	256	16,8
Aisia liburuak	49	3,2
Zientzia. Teknika	59	3,9
Erljioa. Teologia	13	0,9
Sailkatu gabe	6	0,4

Au erreko urtetik hona bi gai multzotan titulu galera egon da, irakaskuntzakoan eta giza/gizarte zientzietakoan. Ikasmaterialak 7,7 puntu jaitsi dira edo, berdin dena, 42 titulu gutxiago argitaratu da. Beherakada handiagoa izan du giza/gizarte alorreko liburuak, hain justu ere 65 titulu-koa.

Beste bi sail mantendu egin dira, haur eta gazteentzako liburua eta zientzia eta teknikari buruzkoa. Gora egin duena, 20,3 puntu igo ere (54 titulu), literatur liburua da. Gero ikusiko dugunez badu interesik horrek, ez bera izan delako bakarra ezeze azken aldi honetako beheranzko joera itzulipurdikatu egin duelako batez ere.

Nolanahi ere, seinalatzea komeni da, baina ez zait iruditzen gora eta behera hauek sakonki esanguratsuak direnik.


Gai taulari begira, aldagaitzak dira nola indarguneak hala ahulguneak. Urtea joan eta urtea etorri, errepikatuz doaz multzoen egituraketak eta, gehienetan, ehunekoak ere balio beretsutan mantentzen dira. Egonkortasun horrek adierazten duena zera da, produkzio-aratzak aldatzekotan gizartearen edo liburugintzaren baldintza objektiboak aldatu beharko lirатеkeela.

Herrialde batetik bestera gai multzoen egituraketa ez da berdina, sailen arteko proportzioa ere berdina izaten ez den bezalaxe. Nazio osoekiko diferentziak nabarmenak dira. Galeuscako herrialdeekin kidetasun gehiago daukagu, baita antza ere. Hiruetan lehen hiru gai multzoak berak dira. Proportzioak aldatu aldatzen dira, horiek bai, norbere produkzioaren arabera, baina horiek ere ez hainbestean.

<i>Gai multzoa</i>	<i>Euskaraz*</i>	<i>Katalanez</i>	<i>Gailegoz</i>
Eskola liburua	33,5	36,5	32,9
Haur eta gazteentzakoa	24,5	18,2	14,3
Literatura	16,8	15,1	21,1

* Euskarazko produkzioari dagozkion datuak nire datu-basekoak dira, oso bestelakoak ematen baititu ISBNko agentzia espainiarrak. Beste biei dagokien informazioa, bai, ISBNkoa da.

Herrialde bakoitzak non jartzen duen indarra erakusten du taula honek. Hots, zeintzuk diren bere kulturgintzaren lehentasunak. Eskola liburuetan proportzio berdintzuan lan egiten da hiru liburugintzetan, bakoitza berean. Haur eta gazteentzako liburuetan guk egiten dugu ahaleginik handiena, txikiena egiten duten gailegoen ondoan dezente handiagoa. Literaturan, ordea, gailegoak gailentzen dira, eta katalanak eta gu paretsu gailbitza.



Hezkuntza eta irakaskuntza: 509 titulu

Urteko produkzioan indarra mantendu du liburu tipo honek, %33,5ekin, baina aurreko urtetik hona 42 titulu

lu gutxiago eman dira argitara. Lehenago ere, 90eko hamarkadaren baitan, hiru urtetan segidan jaitsia zen, eta orain berriz. Produkzio-zikloak izan daitezke.

Irakaskuntza, urtez urteko indizea

Ekoizten den kopuru osoan hirutik bat liburu mota hauxe da. Horrek berak garbi azaltzen du, besterik gabe, liburu tipo honen garrantzia. Baina ez da hori bakarrik. Liburu mota hau estrategikoa da. Estrategikoa denentzat, ez hauentzat bai eta haientzat ez. Estrategikotasun horrek esplikatzen du, esaterako, Ermuko espirituak inspiraturiko zenbat eraso jasan behar izan dituen testuliburuak azken aldion. Badirudi, bestalde, euskal kurrikulum propioa jasotzeko dauden erresistentziak kontuan harturik, zenbait argitaletxeren baitan gordetzen den interesa ez dela ekonomikoa bakarrik, baizik eta baita ere ideologiko-politiko.

Gai eremu honetan, eta honetan bakarrik, berrargitalpena (%59,5) nobedadeko liburua baino altuagoa da. Irakurleria kautiboa da eta urtero berritzen dena. Liburu erabiltzaile berriak asebetetzera dator berrargitalpena.

Lehen argitaraldian kaleratzen den liburu mota honetako lautik ia bat (%24,2) itzulitakoa da, gaztelaniatik itzulia. Jakina da, gainera, erdal kurrikulum ugari dagoela testuliburuaren azpian, itzulpenaren ehunekoak azaltzen duena baino gehiago. Sail honetako liburu asko, izan ere, itzulpen kamuflatuak dira, aitortu gabeko itzulpen/moldapenak.

Hezkuntza eta irakaskuntzako liburua mailaz maila honela sailkatzen da ekoizpenaren arabera:

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	11,5
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	14,3
Lehen Hezkuntza.....	37,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	24,7
Euskararen irakaskuntza.....	10,2
Besterik.....	2,-


% 100

Maila guzti-guztietan ez da berdin ekoizten, sailkapen honetan ageri denez, baina berrargitaratu ere ez da proportzio berean egiten, eta itzuli ere ez. Sailaren barru-

ko produkziarik handiena LHko liburuak izan du aurten: %37,3; DBHko liburua izan da hurrena: %24,7; eta HHko liburuak %14,3 bakarrik izan du. Maila batetik bestera tarte handia dago, agerikoa denez.

Maila bakoitzean berrargitaraturiko liburuak nobedadeak baino pisu gehiago izan du, noski, baina ez mailaz maila proportzio berean. Berrargitalpen gehiena LHko liburuak izan du: %76,4; orpoz orpo jarraitzen zaio DBHko liburuak: %76,2; urrutirago dator, hiru garen lekuan, HHko liburuak: %58,9. Aurreneko biak oso altu dabilta, bai LHko liburuak eta bai DBHkoa, gai multzoko berrargitalpenaren batez bestekoa (%59,5) baino askoz gorago.

Gai multzo honetan itzulitako nobedadeen pisua oro har %24,2 dela esan dugu arestian. Irakaskuntzako hiru maila hauetako tituluetan, ordea, itzulitako nobedadeek



gainditu egiten dute marra hori, hiruetan gainditu ere: LHn (%35,5), HHn (%30) eta DBHn (%26,6).

Haur eta gazteentzako liburuak: 371 titulu

Bigarren multzo hornituena da urteko liburugintzan. Publikatu denaren lautik bat da haur eta gazteentzako literatura (%24,5). Neurri batean aurrekoari loturiko liburu mota da.


Haur eta gazteentzako liburuak

90eko hamarkadaren barruan ibilbide gorabeheratsua izan du liburu mota honek. Igoera handiak alde bate-tik, eta hazkunde negatibo ugari ere bai urtetan zehar. Aurten hiru puntu pasa egin du gora.

Iaz bezala aurten ere nobedadeen indarra handia da: %70,9. Ez dakit seinale ona den ala txarra. Iruditzen zait titulu bakoitzari probetxu gutxitxo ateratzen diogula.

Nobedadeetan gehiena, hona bigarren ezaugarri nagusia, erdal jatorrikoa da: %55,1. Euskal eta erdal jatorri-koen arteko proportzioa, hala ere, orekatu egin da aurten, itxuragabeko erdal dependentzia izan baitu sail honek urte batzuetan.

Giza eta gizarte zientziak: 256 titulu



Nabarmen jaitsi da gai multzo hau aurten: 20 puntu, hots, iaz baino 65 titulu gutxiago argitaratu dira. Urteko liburugintzaren barruan %16,8ko pisua du, helduen literaturak duen berbera. Ez da ahaztu behar euskal kultura idatziaren historian zehar liburu tipo hau minoritarioa izan dela. Azken aldian lortu du burua altxatzea, nahi genukeen adina ez bada ere.

90eko hamarkadan barrena, gorako joera beherakoa baino maizago izan du liburu mota honek. Hiru urtetan egin du behera, eta aurtengoa laugarrena da. Aurtengo beherakada, egia esan, ez da huskeria, 65 titulu galdu baititu.

Giza eta gizarte zientzietako liburuak

Kultura normalizatua eta beregaina balitz gurea, liburu mota honek pisu hagitx handiagoa behar zukeen. Muga zabalak ditu gai multzo honek, izan ere; bertan sartzen baitira, adibidez, filosofia, psikologia, politika, soziologia, zuzenbidea, administrazioa, geografia, historia, etnologia, linguistika, edertia.

Azpisail hauetako bakoitza mundu bat da bere baitan. Liburu produkzioan ez dute guztiek tratamendu kuantitatibo bera. Historia liburuek dute indar handiena: %28,5. Edertiak hartzen du bigarren lekua %13,7rekin. Eta %9-10 bitartean ditugu zuzenbidea, soziologia, linguistika, etnologia. Produkzio maila hori ere ez du politikak: %7. Politikaren inflazio etengabearen dagoen herri batentzat ez da asko.


Filosofia eta psikologia.....	3,5
Soziologia eta estatistika.....	9,4
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	7,-
Zuzenbidea. Administrazioa.....	9,4
Linguistika eta filologia.....	9,7
Geografia eta bidaiak.....	2,7
Historia eta biografiak.....	28,5
Etnologia.....	9,4
Edertia.....	13,7
Besterik.....	6,7

_____ %100

Sail honen ezaugarrietan hiruzpalau puntu seinala daitezke: bat, gorago aipatu bezala, unibertsitateko sail gehienak bere baitan hartzen dituen eremu zabala dela; bi, Administrazio publikoak bere sail eta departamentuetatik ateratzen dituen liburu gehienak gai multzo honetan sartzen direla; hiru, berrargitalpenik gabeko multzoa dela; eta lau, itzulpen gutxikoa ematen duela baina egiazki askoz gehiagokoa dela.

Ez da batere seinale ona berrargitalpenik gabeko liburua izatea. Normala ere bada Administrazioaren hainbat liburutan, baina ez da gertatzen horietan bakarrik, joera bera nabaria baita gainerako liburuetan ere, filosofia dela, edo historia, geografia, nahiz soziologia, politika, etnologia. Bizialdi laburra eta mugatua du liburu mota honek, hegaldi motza.

Itzulpena ere ez dela itxuraz handia esan dugu. %14,5 baino gehiago da, izan. Jatorrizko gisa ematen den euskal testu asko, Administrazioaren elebiko liburuetan adibidez, itzulpenak direlakoan nago, nahiz eta informazio hori ez ageri liburuan bertan. Badakigu Administrazioak gehiena erdaraz sortzen duela, zoritxarrez, eta itzultzaile anoni-moek jartzen dutela euskaraz.



Helduen literatura: 256 titulu

Aurtengo notizia ona literaturaren alorretik datorki-gu: 26,7 puntu hazi da, hau da, 54 titulu gehiago. 90eko hamarkadako batez bestekotik (198 titulu urteko) gora gaude, aurtengo igoerari esker hain zuzen ere.

Are azpimarragarriagoa da igoera hau azken lau urteotako beheranzko tendentzia hautsi egiten duelako. Tendentzia horiek bai direla esanguratsuak eta arriskutsuak. Ez, noski, urte bakoitzean asko jaisten delako, baizik eta eten-gabe egiten duelako behera. Aurten, zorionez, gora egin du literatur liburuak, eta modu nabarmenean egin ere.

Literatura, urtez urteko indizea

Literaturan berrargitalpenak duen pisua, %29,3, ego-ki samarra iruditzen zait. Handiago balu, seinale hobea litzateke, hala ere.

Itzulitako liburuaren pisua, nobedadeetan txikia da: %13,4. Handiago, aldiz, berrargitalpenetan. Beste sailetan gertatzen ez den fenomeno bat gertatzen baita hemen, eta da berrargitaratzen diren literatur liburuetan proport-

zionalki (proportzionalki!) jatorrizkoak baino gehiago direla itzultitakoak. Berrargitaraturiko liburuetan %28 da itzultitako literatur liburua. Urruti dago nobedadeetako %13,4.

Generoen arteko banaketan ez dago nobedade handirik, ezpadaze olerkiaren erreakzioa. Hona banaketa hori:

Eleberria. Ipuina.....	59,-
Olerkia.....	10,1
Antzerkia.....	6,3
Herri-literatura. Bertsoa.....	4,8
Saioa. Poligrafiak.....	5,8
Generoak nahasian.....	4,3
Besterik.....	4,8
	<hr/>
	% 100

Urtero-urtero ematen dugun zerrendatik ez dakar al-daketa iraultzailerik aurtengoak, bistan da. Hor dago narrazioaren gehiengoa, eta hor daude gainerako generoen indar eskasa, urtetik urtera errepikatu ohi dena.

Zerbait esatearren nabarmendu beharko genuke, narrazio eta olerkiaren arteko proportzioa aurreko urteetan baino orekatuxeagoa dela. Sailaren %60 ere hartu izan du narraitibak inoiz edo behin. Gaurkoa %55,5 da. Eta bereziki seinatu nahi duguna da badirudiela poesia gorabidean hasita dagoela: titulu gehiago atera dira, presentzia sozial handiagoa du, eta sailaren barruko pisuak ere gora egin du. Gaurkoan %17,9 da, inoizkorik altuena.

Gainerakoak

Urtero bezala aurten ere badira hiru gai eremu aparte tratatzen ditugunak, titulu aldetik dentsitate txikiagoa dutelako: zientzia, aisia eta erlijio liburuak.

Zientzia eta Teknika

Natur zientziak.....	15,2
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	18,6
Medikuntza.....	13,5
Ekologia. Ingurumena. Agronomia.....	39,-

Besterik.....	13,7
	<hr/>
	% 100

Azken hiru urte hauetan 60 inguruan dabil liburu tipoa honen urteroko titulu kopurua. 59 titulu dira aurten, eta berauen pisua urteko liburugintzaren barruan %3,9koa da.

Liburutan agertzen dena baino presentzia askoz zabalagoa duela zientziak, gauza jakina da. Beste formatu eta euskarri batzuk hautatu ditu, hala nola, internet, telebista, irratia, aldizkaria. Liburuetan ere hemen bildua baino gehiago idazten da gai hauetan, baina irakaskuntzari begira da eta han dago sailkatua.

Ezaugarri propioen artean esan behar da berrargitalpenik gabekoa dela eta jatorrizko liburuz osatua.

Aisia liburuak

Gastronomia.....	9,1
Musika. Antzertia.....	27,2
Argazkigintza. Zinema. Irratia. Telebista....	25,5
Jostaldiak. Jokoak. Kirolak. Mendia.....	27,2
Besterik.....	11,-
	<hr/>
	% 100

Aisiako liburuen titulu kopurua jaitsi egin da aurten. 49 titulu berri publikatu dira, eta %3,2 suposatzen du urteko liburugintzaren barruan. Esanguratsua dateke horren liburu gutxi publikatzea alor honetan, gure herritar euskaldunen ohitura soziolinguistikoaren ispilu, agian. Diglosiaren mamua ez da urruti ibiliko, seguruenik.

Sail honetan ere apenas dagoen berrargitaratzen eta itzultzen den libururik. Editoreak ez dira ausartzen itzultzeraz, jendeak erdaraz errazago irakurtzen duela susmatzen baitute.

Erligioa. Teologia

Teologia morala eta praktikoa.....	38,5
Teologia pastoralak.....	46,1
Eliza kristaua. Liturgia. Misioak.....	15,4
	<hr/>
	% 100

Iazko erdira etorri da titulu kopurua: 13 titulu dira eta bere pisua puntu batera ere ez da iristen, %0,9. Liburu tipo honen presentzia sozialaz, ordea, egin daiteke beste kontsideraziorik ere. Pare bat azalduko ditut hemen: bat, garai bateko produkzioan zuen indarraren antipodetan gaudela egun; eta bi, hemen biltzen ez dugun idatziriko produktu asko zabaltzen dela eliz ingurutan.

Liburu tipo honen ezaugarrien artean aipatu beharrekoa da itzulpenak indar dexentea duela: %38,5; eta berargitalpenik ez dagoela hemen ere.^o

Oharrak

1. Liburuen fit-

2000ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	393	25,9
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	22	1,4
— Haurrentzako argitalpenak	371	24,5
1. FILOSOFIA	9	0,6
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	9	0,6
2. ERLIJIOA. TEOLOGIA	13	0,9
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moralak. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	13	0,9
3. GIZARTE ZIENTZIAK	600	39,5
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioak. Gizarte laguntza. Etnologia	91	6,-
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	509	33,5
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	12	0,8
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	12	0,8
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	47	3,1
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etzeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	47	3,1
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	78	5,1
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	60	3,9
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	18	1,2
8. FILOLOGIA. LITERATURA	281	18,5
— Hizkuntzalaritza. Filologia	25	1,7
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	256	16,8
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	80	5,2
— Geografia	7	0,4
— Biografiak	50	3,3
— Kondaيرا	23	1,5
SAILKATU GABE	6	0,4
GUZTIRA	1.519	100

xa bibliografikoan ikur hauek agertzen dira:

- Tituluaren ostean eta parentesi artean:

i = itzulpena

b = berrargitalpena

e = elebikoa

• Izenen artean:

/ = itzultzailea

// = ilustratzailea (marrazkilari zein argazkilaria)

• Izenaren ondoren:

* = prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea

** = zuzendaria, promotorea, antolatzailea, arduraduna, koordinatzailea

*** = euskalki aldatzailea

• [] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik aparte lortua da.

2. Eskerrak emateko orduan fitxa bibliografikoak osatu ahal izateko laguntza eskaini didaten guztiak eskertu nahi ditut. Lehenengo eta behin, liburuak eskura utzi dizkidaten argitaletxeak: Elkarlanean, Ibaizabal, Erein, Alberdania, Gaiak, UEU, Zubia, Pamiela, Giltza, Susa, Aizkorri, eta beste txikiago batzuk. Fitxa bibliografikoak bidali dizkidaten editorialak ere gogotik eskertu nahi ditut. Ia denak dira, baina ez guzti-guztiak. Gezurra badirudi ere, bada bere datuak igortzeko jatortasunik ez duen editorialik.

Eskerrik beroenak Zabaltzen banaketariari ere, bere biltegiko liburuak eskuratzeko prestutasunagatik.

Eskerren kapituluan leku berezia dute KMko Agurtzane Juaneanak eta Donostiako Udal Liburutegiko Arantxa Artzamendik, informazio bibliografiko eskergaitza eskuratzen baitidate.

Eta zertan esanik ez da nire esker berezi-bereziak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuari luzatu nahi dizkiodala lan hau burutzeko eman didan laguntza ekonomikoagatik.

- 101 gau. OLAIZOLA, Jesus Mari «Txiliku». Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 226 or.
110. Street-eko geltokia. (b). ZABALETA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 152 or.
13. Haur Literatur Lehiaketa Euskera 99. ASKOREN ARTEAN. Iruñeko Udala. Iruña. 29 x 24 cm. 50 or.
- 2000 aurrekontu orokorrak / Presupuestos generales. (e). OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 30 cm.
- 25 urtetik gorakoak Unibertsitatera sartzeko probak / Las pruebas de acceso a la Universidad para mayores de 25 años. (e). ARBIZU, Feli eta beste/Arbizu, Feli*. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 21 x 15 cm. 264 or.
- 7x7x7: Toni Catany, Joan Fontcuberta, David Hilliard, Luis Izquierdo-Mosso, Luis Palma, Humberto Rivas, Begoña Zubero [Erakusketa]. (e). GOLVANO, Fernando eta beste (testuak). Rekalde; Fundación Telefónica. Bilbo; Madril. 30 cm. 96 or.
- 90eko hamarkadako narratiba berria: literatur kritika. GUTIERREZ RETOLAZA, Iratxe. Labayru Ikastegia; BBK. Bilbo. 22 cm. 177 or.
- A zer gaupasa!. MINTEGI LARRAZA, Miguel Angel//Mendiola, Inma. Ibaizabal. Euba. 19 x 12,5 cm. 142 or.
- Abaraskak. IRAOLA, Rufino. Hiria. Alegia. 21 cm. 121 or.
- Abereen desfilea. (i). THE TEMPLAR COMPANY/Mendizabal, Antxiñe//The Templar Company. Ttartalo. Donostia. 15 x 12 cm. 10 or.
- Abereen etxaldea. (b/i). ORWELL, George/Elexpuru, Juan Martin//Alonso, Isabel. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 164 or.
- Abertzaleak eta ezkertiarak: sorterria eta mundua. ZABALO BILBAO, Julen. Elkarlanean. Donostia. 21 x 14 cm. 235 or.
- Aclaraciones sobre la alboka. (e). BARRENETXEA, José Mariano. Flash Impresion. Galdakao. 24 cm. 69 or.
- Adigaiak II (Batueraz). (b). ATEKA, Piedad/Pinuaga, Amaia; Gorrotxategi, Sabin*/San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak IV (Batueraz). (b). ATEKA, Piedad; IBAIZABAL TALDEA//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adigaiak V. (b). ATEKA, Piedad; GORROTXATEGI, Sabin. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Aduna eta aduanak. JUARISTI, Felipe//Ortega, Manu. Erein. Donostia. 21 x 15,5 cm. 38 or.
- Afrikako animalien batzarra. INONGO VI MAKOME//Dominguez, A. Gerro-Mensajero. Bilbo. 21,5 x 13,5 cm. 72 or.
- Afrikako semea. (b). ARANA, Aitor. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 166 or.
- Agripina. (i). BRETECHER, Claire. Beta. Bartzelona. 29,5 x 21 cm. 47 or.
- Zuhaitz gaineko txabola.** (b/i). CROSS, Gillian/Gillenea, Idoia//Howard, Paul. Zubia. Leioa. 20 cm. 102 or.
- Zuhaitz gurgarriak Israelen.** BARANDIARAN, Gaizka. s.n. s.l. 30 cm. 66 or.
- Zumeta 98-99-00 [Erakusketa].** (e). ZUMETA, José Luis — ATXAGA, Bernardo; MERINO, José Luis; MARTINEZ GORRIARAN, Carlos; ARRIETA, Joxe Austin (testuak). Galería La Brocha. [Bilbo]. 29 cm. 130 or.
- Zure etxea, zure planeta: denon etorkizuna eraikitzeko proposamenak / Tu casa, tu planeta: propuestas para un futuro común.** (e). MARTINEZ HUERTA, Joseba. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 17 x 24,5 cm. 137 or.
- Zuzenbide sindikala.** BENGOETXEA ALKORTA, Aitor; IRURZUN UGALDE, Koldo Gotzon. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 24 x 17 cm. 177 or.

Egunen
gurpilean



kultura • 123

Kultura oinpean edo hankapeko kultura

JOSEBA BALERDI



literatura • 127

Ate joka • Nork berea garatzeko garaia

- Gauza askoren 25. urteurrena
- Etapak erre, tradizioa eraiki
- Denontzako eta denetarako lekua

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 132

Hizkuntz normalkuntzaren gaineko usteak

- Euskalduntzeko saioen emaitza diskutigarriak
- Euskalduntzearen *ikas* eta *gizarte* prozesuak
- Ikusmolde zientifikoen ekarpenak: adierazle sistema eta programa ebaluaketa • Uste ustelak *versus* adierazle sistemak eta programen ebaluaketa

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



telepolis • 138

Euskal Informazio Gizartearen Urtea: 2002

- e-debagoiena, lehen ziberraldea • Euskal sarea, marraskiloa eta barea • Elektrizitate Gizartearen ildo beretik
- Telediaspora • Telebitxikeriak

AMATIÑO



Kultura oinpean edo hankapeko kultura

Karpa, estalki, toldo edo dena delakoa jarri eta aurrera! Gainetik begiraten duenak ez ikusteko ahalegina egin (aldamenetatik so dagoenak ezer ez duela ikusten ziurtatu ondoren) eta aurrera! Aranzadi elkartekoak bertara hurbildu eta sartzen ez utzi. Ezjakintasunaren alarde paregabea, Labiano abizena duen bat (alkateordea da hiriburuan, kontuz!), Aranzadi elkarteak autoritate zientifikorik ez duela, idatziz eta guzti jartzera ausartu. Bidegabekeriak asko dira, baina ez dira oraindik maila gorenera iritsi. Iruñeko eta Nafarroako kultura agintariak (ez da komeni agintari kulturalekin nahastea) oraindik ere sorpresa bat baino gehiago emango dizkigute, gaurko gehiegikeria gainditzeko ezinezkoa dirudienean ere asmatzen baitute jendea berriro ere harritzeko formula berriren bat. Badute, horretan, zirkoak adina meritu, eta hainbeste behintzat aitortu beharko zaie. Edo olinpismoa zirkoa baino gehiago maite duenarentzat, *citius, altius, fortius!*

Iruñeko Gaztelu plazan kotxeentzako aparkaleku bat egiteko proiektu honek baditu dagoeneko hilabete batzuk, batzuren memorian urte batzuk ere bai. Kultura jakin baten ondorioa da, kotxearen kultura deitzen zaion horrena —kultura hitza beste edozeinekin elkartzen bada kontzeptu berriak sortzeko ahalmen agortezina duela erakutsiz berriro—; baina ez da hori hemen aztertu nahiko nukeena, leku jakin batean kotxeentzako aparkalekua egitea *a priori* ez baita eztabaida kulturalean sartzeko gaia, edo agian bai, baina ez da nire oraingo asmoa.

Eta proiektu honek hasiera-hasieratik oso gauza bitxi eta bereziak erakutsi badizkigu ere, bereziki gure agintariak soziologia eta batez ere politika ulertzeko dituzten moduez, ez noa oraingoz hiritargoaren kontzeptuak astindu edo beste inolako hautsik harrotzera. Oinetara begiratzera baizik, hanketara. Hankapera, hobeto esanda.

Adokinen azpian hondartza ez baino historia baitago, kultura baitago. Eta agian, hondartzarik ezean, garai bateko Iruñeko bero eta usain mikatzak leuntzeko balio izango zuten termak, erromatarren luxuzko bainuetxeak.

Horiek, termak, agertu dira dagoeneko, mosaiko eta guzti, baina ez omen dute balio handiegirik. Horra agintarien erabakia! Baina nekropoli handi samar bat ere agertu da, eta hango hezurrek ere baliorik ez. Orduko femurak eta oraingoak itxuraz berdinegiak, eta antropologoek ezer ikasteko aukerarik ez. Gainerako zientzialarientzat nahikoa izango da hezurrei ateratako argazkiak aztertzea. Baina zulatzen jarraitu eta jarraitu, eta oraingoan sekulako harresia: lau bat metroko zabalera duena, eta plaza ipar-hego ardatzean zeharkatzen duena. Hara! Espero ziren gazteluen aztarnak agertu ez oraindik, eta inork espero ez zuen harresia agertu! Erdi Arokoa? Baliteke, baina ez omen dirudi. Erromatarren garaikoa? Oso posiblea omen da. Erromatarrek ez al ziren ba gaur egun katedrala dagoen inguruan bakarrik egon, Nabarrera inguruan? Ez al zioten hori garai hartako kontuetan aditua den Mezquíriz doktorearen tesiek? (Nafarroako Museoko zuzendari izandakoa da Mezquíriz andrea, Nafarroako Unibertsitatean irakaslea, eta bere ezpainetatik entzuna daukat, museoaren zuzendari zen garaietan, ezin zuela ulertu nolatan izan zezakeen interesik Euskal Telebista batek museo nafar baten jardueran, kanpoko telebista bat izanik. Agintari kulturalak eta kultura agintariak ez dira ez, gauza bera).

Joño! Termak erromatarrenak izan eta Gaztelu plazan bazeuden, erromatarrek uruti ez ziren ibiliko ba! Edo bertako euskaldun kaiku, petral eta zikinak garbitu eta zorri-gabetzeko egin ote zituzten ba terma haiek, euren hirigunetik kanpo? Oraindik ez du inork esan, baina ez nau baterre harrutuko Corpas Mauleón medikuak (Bianako Printzea Erakundearen zuzendari nagusia, Nafarroako kultura agintari goiena, kontseilariaren azpitik), egun hauetako batean, harresiak inolako garrantzirik ez duela esateak. Eta harresiak harresi, aparkalekua egitea askoz ere garrantzitsuagoa dela hiriburua ren ondare historiko, arkitektoniko eta arkeologikoari eustea baino.

Temati daude oso, nolana ere, kultura agintari hauek. Miguel Sanzen kultura kontseilariak berak, Laguna jaunak, esan du, gauzak dauden moduan, beharbada aparkalekuaren proiektua txikitu egin beharko dela, uste bezainbat handia ezin izango dela egin ziurrenik. Eta gaineratu du, aztarna arkeologikorik agertu ez den guneetan has daitezkeela dagoeneko aparkalekuaren obrak. Hau da, zati honetan bai, zulo ikaragarria egin daiteke eta zementua sartu, beste honetan ez, erromatarren harresi bat baitago, eta harantzaxeago ere ez, harri arraro batzuk daude azpian eta. Ondare historikoari errespetu eskasa, eta gainera, arkitekturan erabiltzen diren eraikitze metodoen ezagutza murrizta. Baina egingo dute, ez dudarik izan!

Kontu honetan pozten nauen gauza bakarra Gaztelu plaza agintari hauentzako guztientzako buruhauste bihurtu izana da. Oraindik ez dut aipatu Yolanda Barcina alkatearen izena, baina bera izango da, aparkalekua egiten duten unean, urre koloreko plakatxoan agertuko dena: «*Este aparcamiento fue inaugurado siendo alcaldesa de Pamplona Doña Yolanda Barcina etc.*». Euskaraz ez dute idatziko, egon lasai.

Baina gutxienez, 2001eko uztailean, gauaren iluntasunean babestuta hasitako lan hauek, bere kontzientzia zertxobait zulatuko zutelakoan nago. Ez naiz optimista hortik aurrera, ez dut uste Barcinaren hilobi politiko bihurtuko denik Gaztelu plazako zuloa. Baina —tontoaren kontsolamendua— ez dute datozen Sanferminetarako, uste zuten bezala, ia guztia bukatuta edukiko. Ezin izango dituzte epeak bete, eta ezin izango dute, eurek uste bezala, aparkalekuaren lanen amaiera eta hurrengo udal hauteskundearen artean urte beteko epe luzerik izan, denbora tarte horretan iruindar askoren amorrua baretu eta botoa emateko orduan inork kontuan ez ziela hartuko espero baitzuten.

Gertakariak gertakari, ordea, benetan kezkarria da gaur egungo agintariak kultura trapu zahar gisa erabiltzeko duten joera; erabateko instrumentalizazioaren erori izana, pragmatismoaren eta modemotasunaren izenean. Kulturak ez du baliorik berez agintarientzat. Etekinak behar

dira. Aparkaleku proiektua aldatu eta jende asko erakartzea lortuko lukeen museo handi bat egitea Gaztelu plaza azpian? Beharbada onartuko zuketzen hori garaiz pentsatu izan balute —azken batean eraikin bat egin daiteke, zementua sartu, dirua mugitu, eta museoaren kudeaketa norbaiten esku utzi—, baina harrokeriak ez die uzten euren erabaki bakar bat ere erratua izan daitekeela aitortzen. Kontua etekinak ateratzea da!

Gasteizen ere, ez dakit garai batean autobus geltoki zen orubean indusketa arkeologikorik egin den, baina arte garaikidearen museoa egiteko lanetan, Artium izen ponposoaren atzean, badirudi museoaren eraikinari museoaren edukiei baino garrantzi gehiago ematen diotela. Badira museo horretan izango diren lanen artean benetako garrantzia dutenak, baina kultura agintariek, beste behin ere, nahiago izan dute eraikina bera saldu, animaziozko bideo birtual erakargarriak egin museoa nolakoa izango den erakusteko, eta turismo zirkuitutan sartu ahal izateko ahalegin guztiak egin. Kontua jendea Gasteizera hurbiltzea da, berdin dio zertara. Parke tematikoa egitea ere pentsatu zuten, baina atera ez zaienez, kultura aitzakia polita izan daiteke. Ondo ikusia dago, gainera! Baina etor dadila jendea eta utz ditzala sosak, bai museoan bertan, bai Santa Maria katedral zaharrean egiten ari diren indusketa lanak ikusten, eta baita inguruko jatetxe, hotel eta tabernetan ere. Zoologiko bat jarri balute ere emaitza antzekoak lortuko zituzketen, baina zoologiko bat ez da kultura bezain *chic*-a. Kontua dirua da, eta kultura aitzakia. Eta ez naiz ari fundamentalismo sinplista batetik hitzetan, ez. Behin baino gehiagotan esan dut kulturaren kontzeptua ezin dela gai akademikoetara murriztu, eta derrigorrezkoa dela sormen kulturala bultzatu eta jendearen arreta piztea, bi gauzak batera. Bilboko Arte Ederren museoak azkenaldi honetan zentzu horretan egindako lana ere goraiatu dut behin baino gehiagotan. (Baina Zugaza ere Madrilera eraman dute orain, Prado zuzentzera). Kulturaren erabilpen zekenak haserretzen nau benetan; gaurko ustezko distirak, bihar erabateko iluntasun bihur daitezkeelako. ¶



Ate joka

Jakin-eko arduradunen eskaerari esker, edo haien erruz, ate joka natorkizue urtearen lehen ale honetan, eta bi hilero etortzeko promesa dakart, denboraldi batez gutxienez.

Enkargua argia da: gaurkotasunari loturik, euskal kulturaren eremuan eta, batez ere, literaturgintzan jazo denaren inguruan iritzia ematea. Eta halaxe egiten ahaleginduko naiz, nahiz eta badakidan (eta azken urteetan bertan idatzi ditudan urteko balantzeak irakurri dituenak ere badaki) jakin ere, gaurkotasunetik abstraktura ihes egiteko joera handia izaten dudala. Beste arlo askotan gertatzen den bezalaxe, kulturgintzan ere ezin baitira gertakizun solteak bere horretan ulertu, ingurune eta prozesu batean kokatzen ez badira.

Nork berea garatzeko garaia

Aurreko gutzia aitzakia edo justifikatzaile izan dadila orain esateko zein izan zen azkeneko Durangoko Liburu eta Disko Azokak utzi zidan sentsazioa: aspaldian abiatu-riko prozesua garatzen ari dela alegia, eta inpresio hori ezin da azaldu urte bakar bateko azoka ikusita.

Durangoko Azokaz asko esan da aurten, aurreko urteetan baino gehiago itxura denez. Komunikabideek espazio handiagoa eskaini diote (bai eta euskal gaiez noiz-behinka edo zeharka baino aritzen ez diren komunikabide horiek), eta uste zabalduena izan da liburuaren industria indartsu dagoela, baina ahulezia estrukturalak dituela bere barnean, hala nola, tirada gero eta murriztagoak, liburuaren bizialdi laburra, irakurzaileen kopuru eskasa eta kopuru hori handitzeko beharrezana.

Hori gutzia egia izanik ere (ez beti sinistarazi nahi izan zaigun tamainan), beste faktore bat ikusi da aurten-

go Azokan eta zera da, idazleak, azkenik, nork bere ibilbidea garatzeko denbora nahikoa izaten ari direla eta, lehenengoz, idazle baten eboluzioaz mintza daitekeela. Eboluzioa zentzu zabalean, gainera. Eusebio Osa zenak zioen bezala, «premiak irakasle eta testugile egin gintuen, hala-beharrez, eta orain, pixka-pixkanaka, nork bere arlora jotzeko aukera izaten ari da; hura nobelagile, beste hau itzultzaile, hango hura bertsolari, beste hori musikagile».

Diogunaren adibide argiena Andu Lertxundi adibidea dugu. Ikastolen mugimenduan murgildu zen lehenik, bai irakasle baita haurrentzako liburuak idazten ere, hura zelako artean egin beharrekoa. Geroago ikastola horietarako maisu-maistrak hezi behar zirela eta, Magisteritza Eskolan jardun zuen zortzi urtez. Urte beretsuetan aitzindaria izan genuen (Koldo Izagirre eta beste bakarren bat ahaztu gabe) euskal zinemagintzan, zuzendari *bezala* (sic) arituz. Garai berriak telebista ekarri, eta Lertxundi bertan ere ikusi genuen, gidoigile.

Lertxundik liburu handiak eman dizkigu, eta horietarik azkena abenduan eman du argitara, Durangoko Azokan. *Mentura dugun artean* hausnarketa liburu da, literaturaren inguruan, alboan, gainean, azpian Anduk egiten duen hausnarketa. Ez da zaila ikustea eboluzioa. Liburu honek, gainera, urte askoren esperientzia eta metaketa du, orain hogeit, hogeita bost urte egin ezin izango zuena.

Gauza askoren 25. urteurrena

Andu adibide harturik azaldu nahi izan dugun ideia argia da: nahiz eta oraindik premiei erantzun behar izaten diegun, gero eta jende gehiago ari da euskal kulturagintzan, eta ez da beharrezkoa norberak hutsune guztiak betetzea. Zaletasun edo ahalmen araberako aukeraketa egin daiteke dagoeneko: irakasle, idazle, politikari, kazetari edo normalkuntzarako teknikaria izan. Kulturagintza eta kulturagileak gizartearen egituretan hedatu eta finkatu egin dira, sare bat osatuz. Garai bateko militantismoa ogibide bihurtu ahal izan dute askok eta askok. Hala ere,

bestelako kasuak ere ikusten dira, ikusi. Askotxok ogibidea baino ez dute ikusten oraindik ere militantismo dosi handia eskatzen den lanbideetan.

Militantzia ez da amaitu beraz. Euskararekin zuzenean loturik dagoen kultur adierazpen oro oraindik dago militantismoz kutsatuta, kulturgileak kontziente baitira bere eremu naturala, bere merkatua, zabaldu beharra dagoela, ahul-ahula delako komunitate txikian bizi eta elikatzen den kulturgintzaren industria.

Edonola ere, denbora aurrera doa, eta esan bezala, denbora nahikoa izaten ari gara orduan ereindako hazia nola garatu den ikusteko. Elkarlanean eta Erein-ek beren 25 urteurrenak ospatu dituzte joan 2001eko amaieran eta, egiatan, harritzekoa da ikustea nolako datuak zera-biltzaten orain 25 urte, eta zenbatekoak diren oraingoak.

Baina bi argiteletxe hauek ez dira bakarrak. UEUK (Udako Euskal Unibertsitatea) ere 25 urte ospatu du joandako urtean, Uztaritzetik etorri eta Iruñean kokatu zela, 1976 urtean. Iaz 25 urte bete ziren Gasteizko Jazzaldiaren sorreraz. 2001 urtean ere 25 urte bete du ikastolaren aldeko *Kilometroak* jaialdiak, eta hasierako hura bezala, azkenengo hau ere Beasainen burutu da. *Egin* eta *Deia* egunkarien sorreraz ere 25 urte bete ziren orain gutxi, eta aurreko urtean 25 urte bete ziren Gabriel Aresti hil zenetik, gure poesia eta literatura hiritarraren erreferente ezinbestekoa. Aurten, ordea, 25 urte bete ditu UNEDek Bergaran, eta egunotan ari dira ospatzen.

Hogeita bost urte ez dira urte asko eta, hala ere, kolorerik ez dago orduko eta oraingo egoerak konparatuz gero, kulturgintzaren presentziari eta kalitateari dagokiela.

Etapak erre, tradizioa eraiki

Urteen kontaketaekin segituz, orain ia hogeitaz urte Txuma Lasagabasterrek zioen ez zegoela esaterik zein zen jorra literario nagusia euskal letretan. Garai berean, eta kanpoko literatura irakurtzearen eraginez, narrazio kostunbrista, estilo existentzialista, inpresionista, esperimenta-

lismo *ouliipo*-zalea, *dirty realism* dei litekeena, eta errealis-
mo magiko hegoamerikarra irakur zitezkeen euskaraz, ba-
tera, eboluzio kronologiko eta estilistikorik izan gabe. Es-
tilo aldaketa ez zetorren barne garapen natural batetik,
baizik eta norberak egiten zituen irakurketa ordenatu edo
kaotikoetatik eta, honela, idazle bakoitzak bere *tradizio*
propioa osatzen zuen.

Eta, orain? Etenik gabeko denboraldi honetan (ez
dugu etentzat joko uholdeek egindako sarraskia edo zen-
bait *garzonkeria*), kulturgileek —kolektiboek eta norbaka-
nakoek— gauzatu ahal izan dute bai garapen naturala bai
eta besteekiko transmisioa ere. Transmisioa esperientzia
editorialean esaterako, eta transmisioa egileen esperient-
ziei dagokiela.

Anekdotak bat baino ez da, baina ez da hutsala. Joan
Mari Irigoienek *Lur bat haratago* nobela aurkeztu zuenean,
25 urte lehenago bururatutako ideia zela esan zuen, Axu-
larren *Gero* liburuaren irakurketaldi batean bururatua.
Denbora izan du, beraz, orduko ideia hura geroago garat-
zeko, mamitzeko, aberasteko eta, batez ere, tartean egin-
dako lan guztien esperientzia metatuak barnean sartu
ahal izateko.

Garapen pertsonala, beraz, eta transmisioa. Mujika
Iraolak nekez idatziko zituen bere ipuinak aurretik Atxa-
gak idatzi izan ez balitu bereak. Kirmen Uriberen poesia ez
zen sortuko Sarrionaindiaren poesia existitu izan ez balitz.
Ixiar Rozasek ezin izango zuen horrelako libururik egin
Arantza Urretabizkaiak bidea zabaldu izan ez balu. Gauza
batzuk idatzi behar ziren aurretik, oinarritzko gaiak, esteti-
kak, ardurak, bestelako gauzak egin ahal izateko geroago.
Azken mende hauetan gaztelaniaz idatzi den guztia idatzi
ahal izateko, norbaitek idatzi behar zuen *El Quijote* lehe-
nik, eta idazle bati, Cervantesi, egokitu zitzaion lan hura.

Aitoritu behar dugu orain 25 urte (eta lehenago ere
bai) argitaratzen hasi ziren idazle haiek ezer gutxi aurkitu
zutela idatzirik euskaraz. Ondorengo gazteek askoz ere
gauza gehiago aurkitu dute. Honezkero ez dute hori guz-
tia egin behar, eginda baitago. Norbaitek garbitu ditu sas-
trakak bidean, eta orain hortik aurrera abiatzea dute.

Hizkuntzaren inguruan izan diren eztabaida antzu ugari gairatzen daude. Ez dute arduratu behar eskomulgaturik ote dauden *h* hizkia erabiltzeagatik. Hamazortzi urte arteko irakaskuntza osoa euskaraz jaso dute, eta pribilegiatuenean, hortik aurreragokoa ere bai. Testuliburuak euskaraz jaso, eta derri gorrezko irakurketak zein bestelakoak ere euskaraz egin dituzte, eta naturala iruditzen zaie, jakin gabe batera naturala izan ez den prozesu baten emaitza dela, oztopoz betea eta korapilatsua.

Denontzako eta denetarako lekua

Prozesu honetan pozgarriena, behingoz, partaide guztientzako lekua dagoela ikustea da. Gazteek dakarten freskotasuna eskertzekoa da, baina hori bezain eskergarria da aurretik ibilitakoek jubilatzekeo asmorik ez dutela ikustea, zeren, beren ibilbide propioa aberasten duten heinean, ibilbide kolektiboa ere gorpuztuz baitoaz, eta literatura osoa elikatzen da beraien lanaz.

Aurtengo Azokan, esaterako, Uribe, Osoro eta Serranorekin batera, Lertxundi eta Sarrionaindiak argitaratu dute. Poesia eta narratibaz gain, saiakera, artikulu bilduma, umeentzako egutegi literarioak, eta sailkatzeko zailak diren liburu generoanizdunak plazaratu dira. Poesia, beste behin, musikagintzan barneratu da, eta diskogintzak bere baliabideak utzi dizkio narratiba laburrari, liburu formatuan egin ordez, zenbait testu argitaratu baitira CDaren teknikari esker (ikus Putz eta Ostielaren saioak). Internet erabiliz, liburu konbentzionalak (sarearen bidez erosteko) eta testu originalak eskaintzen dizkigute argialetxeek (Susaren «amukoak» atalekoak esaterako), debalde eskaini gainera.

Imajinario kolektiboa mamituz doa, gorpuztuz, sendotuz, eta lan horretan inor ez dago soberan, adin eta estilo guztietakoen ekarpenak baliagarriak baitira.¶



Hizkuntz normalkuntzaren gaineko usteak

Euskal hiztun komunitatearen desagertzea iragartzen zuen Bernardo Atxagak abenduaren bukaeran, Bilbao Zaharra Forum-aren estreinako hitzaldian, eta, hortik aste batzuetara, adierazpen horiek erantzuna jasotzen zuten Juan Ignacio Perez Iglesiasen artikulua orekatu batean, non euskararen txanponak dituen alde baikorrak ere gogorarazten baitziren (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-1-5). Tarteka-marteka, antzeko eztabaidak errepikatu ohi dira euskararekiko nolabaiteko kezka eta konpromisoa dugunon artean; batzuek euskarak urteotan emandako aurrerapausoak aipatzen dituzte bereziki eta besteek, oster, gure hizkuntzak pairatzen duen egoera larria.

Nola ezkondu bi iritzi horiek? Posible ote da biak batera egia izatea? Ez bai honetan murgildurik, euskararen egoera eta joera ezagutzeko ahaleginetan, eskertzekoa litzateke ahalik eta argazkirik errealea marrazten saiatzea. Bestela esanda, aburu ezkorrek bezain antzua zaigu triunfalismoa, horiek guztiek batere laguntzen ez digutelako zilegitzat jotzen dugun jakin-mina asetzen.

Bi ikusmira horiek —alde argiarena eta alde ilunarena— batera kontuan hartuta, hizkuntz diagnosi laburra honako hauxe litzateke:

- Euskarak normalkuntzarako bidean aurrerapauso handiak eman ditu azken hamarkadetan, Hego Euskal Herrian; Iparraldean, berriz, euskararen gainbehera oraintxe hasi da eteten.
- Aurrerapausoak aurrerapauso, euskarak oraindik jasaten duen egoera soziolinguistikoa gertuago dago hiltzirik normalkuntza osotik baino.
- Normalkuntzarako bidean argi-ilunak egon badaude eta, beraz, bada zer hobetu ere.

Balorapen bateratzaile honetan *botila* ezagunaren alde biak batera (*hustua* eta *betea*) kontuan hartzeak ikuspe-

gi osatuagoa eskain dezake, errealitatearen isla aberatsagoa. Halere, azken ikusmolde hori osatuagoa izanagatik ere okerra izan daiteke, guztiz diskutigarria eta, menturaz, ez zuzena. Azken finean, *ustea, beti ustel*.

Orduan, zer? Nola osatu egoeraren diagnosi zehatza eta zuzena? Nola bereiztu eta zedarritu errealitatearen alderdi ahulak eta okerrak? Erantzuna, aurrerago.

Euskalduntzeko saioen emaitza diskutigarriak

Euskaltegien emaitzek ere balorapen kontrajarriak sortu ohi dituzte, estimazio horiek burutzeko erabiltzen diren datu eta irizpideen arabekoak. Urtez urteko izen ematearen kopurua izaten da askotan euskaltegien ustezko arrakastaren seinale; baina, paradoxikoki, euskaltegien emaitzarik hoberenak euskaltegiak ixtera bultzatu beharko litzuzke, erdaldun guztiak dagoeneko euskaldundu direlako. Matrikula kopuruak beste ezaugarri batzuen argira interpretatu beharko lirateke: ikasle berriak ote?; behin eta berri urratsak errepikatzen dituzten horietakoak?; edo ikastaroak eta urte sabatikoak amaierarik gabeko segidan tartekatzen dituztenak?

Halere, euskaltegien emaitzek sarri ezkututzen duten beste aurpegi ilun bat ondoko hau da: euskalduntzen jende asko hasi bada ere, gutxik bete dute euskara normaltasunez erabili ahal izateko asmoa. Horretaz estatistikarik ez badut ere, 70 eta 80ko hamarkadetan euskara ikasten saiatu baina bukatzeke utzi zuten koadrila-kideak, lagunak eta ezagunak hain ugariak izanik, euskalduntze jardunean gabezia handia dela ez dut zalantza izpirik; ikasle horiek bidean jasotakoa, espero zuten uzta narotik urrun gelditu zitzaien: frustrazioa, ustez hizkuntza ikasteko zuten gaitasun ezagatik eta euskalduna izateko asmo zapuztuagatik; baita ikasten emandako hamaika ordu eta gastatutako diruen inbertsio ustelagatik ere. Zer dela-eta, hainbat porrot?

Errealitate gordin horrek ez ote digu irakasten hizkuntza bateko hiztuna izatea hizkuntz eduki batzuk bar-

neratzea baino askoz gehiago dela? Izan ere, hizkuntza bat ikastea gizabanakoaren mailako gertakizuna bada, hizkuntza horren hiztun osoa izateak izaera soziala du: pertsona ez ezik, gizartea ere tartean sartzen da, ezinbestez.

Euskalduntzearen *ikas* eta *gizarte* prozesuak

Gure hipotesia hau da: hizkuntzaren alderdi sozialean arretarik ez eskaintzean datzala, euskaldundu nahi zuten euskaltzale zintzo askok huts egitea. Bestela esanda, euskalduntzeak, *ikas prozesua* ez ezik, *gizarte prozesua* ere hartzen du bere baitan. Azter ditzagun, ondoren, hipotesiaren bi prozesu horiek.


Ikas prozesua: euskaltegian nahiz bestelako bideren batez (multimediak, besteak beste) hizkuntz edukiez jabetzea da eta horiek erabiltzeko arauz menperatzea.

Gizarte prozesua: hizkuntza gizarte-osagarri bat delako agertzen da eta prozesu hau, nahitaez, gizartean burutzen da, hizkuntz komunitateko hiztunekin harremanetan aritzean; beste hitzetan, hizkuntza erabiltzean. Hizkuntza ez da komunikaziorako tresna hutsa, ezta neutroa ere: bere hiztun-taldearen isla da eta harremanetan eragiten du ere.

Gauzak horrela, gizakia euskalduntzeko *ikas prozesuarekin* batera beharrezkoa litzateke ere *gizarte prozesua* osatzea, eta bigarren prozesu horrek hainbat aldaketa lekarkioke euskalduntze ahaleginetan dabilenari: euskarazko harremanak ez lirateke erdarazko berberak izango, ezta berdinak ere. Aldaketa horiek gertatu ezean, baliteke *ikas prozesua* gizabanakoa zinez euskalduntzeko nahikoa ez izatea. Ikus ditzagun, bada, bi prozesu horien arteko balizko aldeak, ondoko koadroan laburbilduta.

Esan bezala, uste dugu pertsona bat euskalduntzeko *ikas* eta *gizarte* prozesuak, biak, ezinbestez burutu behar direla, ostantzean, porrota gertatzeko arrisku handia egongo litzatekeelako. Baina, gogoan izan, planteamendu hau hipotesia baino ez da.

Ikas prozesu eta gizarte prozesuen arteko aldeak



Ikusmolde zientifikoek ekarpenak: adierazle sistema eta programa ebaluaketa

Arestian aipatu dugu euskararen egoera nahiz euskalduntzearen emaitzen balorazioa oso dudazkoak eta diskutigarriak izan daitezkeela, eta baita ika-mika antzuen pizgarri ere. Horregatik, diagnosi eta datu irakurketen egokitasunaren korapiloa askatzeko luza daitekeen proposamenik zentzudunena eredu zientifikoaren eskutik datorkigulakoan gaude. Eta edozein gizarte arloren diagnosi zorrotz, zehatz, fidagarri eta baliagarri bati ekiteko aspaldian asmatu ziren *adierazle sistemak* eta *programen ebaluaketa*. Kontuan izan prozedura horiek, mugatuak izanik ere, egoera batez lor daitezkeen emaitzarik egokienak eskain diezazkiguketela.

Harrigarria da, bestalde, neurketa eta ebaluaketarako tresna horiek gure artean horren erabilera urria izatea, batez ere kultura anglosaxoniarran duten hedapen zabala ikusita.

Adierazle sistema batek egoera soziolinguistikoaren berri zehatza eta jarraia eman beharko du, aztergai dugun errealitate horren sail garrantzitsuetan. Horrela, egoeraren berri eman ez ezik, horren bilakaera ere hartuko du kontuan.

Programen ebaluaketak, bere aldetik, abian diren ekimen eta programen emaitzak ditu aztergai, eta neurketarako prozedura bat baino gehiago da: egoeraren berri ematea ez ezik, programa eta ekimenek eragindako ondorioak agerian uztea bilatzen baitu. Horregatik, programen ebaluaketak helburu jakin bati zuzendutako baliabideen egokitasunaz edo ezereztasunaz hitz egiten digu; hau da, agerian uzten du hartutako bidetik jarraitzeak merezi ote duen.

Uste ustelak versus adierazle sistemak eta programen ebaluaketa

Bi tresna mota horiek eskainitako datuek funtsik gabeko bihozkada eta hausnarketa alboratuei lekua kenduko liekete edo, kasurik hoberenean uste horiek zuzenak balira, oinarri egiaztatua eman. Horrexegatik, ondoko lerroetan azalduko dugu zergatik erabili beharko genituzkeen *adierazle sistemak* eta *programen ebaluaketarako* teknikak, hasieran aipatu ditugun euskararen gaineko bi kasuetan.

Euskarak duen egoeraren berri zehatza jasotzea bezain premiazkoa da adierazle sistema fidagarri eta baliagarria osatzea. Dena dela, behar honi aurre egitea ez da baxterre erraza, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko errealitate ezberdinak era egokian bilduko lituzketen adierazle-multzo bateratua eraikitzea eta dagokion informazioaz elikatzea berez korapilatsua delako. Zailtasuna, halere, ez da arrazoi nahikorik erronkari muzin egiteko. Osterantzean, zilegi izango da euskararen errealitatea bakoitzak nahi duen bezala ulertzea.

Goazen, orain, bigarren adibidearekin. Gure ustez, euskalduntzean ebaluaketa era egokian burutzen da *ikas prozesuan*, baina ez *gizarte prozesuan*. Lehenengoan, euskara ikastearen edukiak urratsez urrats daude neurtuta, eta horiei dagozkien frogak gainditu behar dituzte ikasleek, gaitasun nahikoaren ziurtagiria lortuko badute. Prozesu osoa lotua dago.


Gizarte prozesurako, aldiz, ez dago prozedura finkorik, ezta gertakizun horren gaineko ikerketa sendorik ere (edo,

hobe esanda, guk geuk ez dugu ezagutzen). Susmatzen dugu *ikas prozesuan* urrats jakin batera iritsiz gero, *gizarte prozesuari* ekin behar diola ikasleak; baina hortik aurrera ez dago gauza garbirik.

Egia da, glotodidaktikaren garapenaren ondorioz, *ikas prozesuan* bertan gero eta leku handiago duela mintzapraktikak. Baina euskaraz egiten ikasleak zenbat ordu eman beharko lukeen ez dakigu, eta jardun horren neurketa jarrairako (gizarte sareen metodologian abiapuntua izan beharko lukeen) tresnarik ere ez da garatu. Are ezezagunagoa zaigu ikasleak, *ikas prozesua* bukatu eta gero, lortu duen gaitasunari eusteko zenbat euskara erabilera behar duen.

Are gehiago, euskara ikasteko izena ematen duen ikasle berriari *gizarte prozesuari* buruz ez zaio ezer aipatzen, eta ez zaio ohartarazten hori serio hartu ezean jai duela; nolabaiteko iruzurra egiten zaio, euskalduntzeari atxikitako *letra txikia* a rgi eta garbi azaltzen ez zaiolako.

Bukatzeke esan dezagun euskalgintzan aurrera egin nahi izanez gero, baliabideak modurik egokienean erabili beharko ditugula, eta, horretarako, zientziaren garapen metodologiko eta teknikoak guztiz baliagarriak direla. Horregatik, halako planteamenduek gurean duten oihartzun gero eta zabalagoa ikusita, bide onean gaudela deritzot (baina uste hau ere subjektiboa da).°



Euskal Informazio Gizartearen Urtea: 2002

Aurtengo urtea erabakigarria izango da euskal Informazio Gizartearen inguruan. Batetik, Eusko Jaurlaritzak otsailean zehar aurkeztuko du «Euskadi Informazio Gizartearen» deritzan plana. Egitasmo zehatzak eta eraginkorrak jarri nahi bide dira indarrean, sareak, edukiz, zerbitzuz zein, sektorez sektore, edozenbat erabilpenez. Esaldi batez, helburua Europarekiko konbergentzia lortzea da... baita Informazio Gizartearen ere. Plana, legez, Euskal Autonomia Erkidegoari bakarrik dagokion arren, haren eragina, izatez, Euskal Herri guztian zehar sumatuko da, sareak ez baitu langarik, ez merkatuak mugarik. Are gutxiago, daitezkeen langak eta mugak euskal merkatuak murriztaz nahi izango dituen heinean.

Bestetik, hurrengo Gabonetarako, Internet-loturadun familien ehunekoa %33 inguru edo izango da Hegoaldean, 1999an %6 eta 2000n %14 izan zen artean. Datuok gertatzen ari den bilakaera bizkorra adierazten dute eta ia ustekabearen ernaltzen diharduen potentzialaren berri eman.

e-debagoiena, lehen ziberraldea

Giro honetan, otsailean aurkeztuko da, Gipuzkoako Debagoiena eskualdean, Euskal Herriko lehen ziberraldea. Hiru dira, besteak beste, egitasmo honen helbururik nagusienak: Debagoieneko bertako auzoetarako telekomunikazio-azpiegiturak helarazi, Informazio Gizarteak eskain ditzakeen aplikazio guztiak indarrean jarri eta, ondorioz, «Euskadi Informazio Gizartearen» deritzan planaren baitan Debagoiena bera eskualde pilotutzat hartu.

Eskualde honen aukera eta aitzindaritzza ez da gero ustekabearen gertatuko den zerbait. Nekez aurki daiteke beste eskualderen bat Euskal Herri guztian zehar Debagoiena-

ren ahalmenaren bezainbestekorik eskainiko duenik: be-
deratzi herri elebidunen gurari amankomunatua, MCCren
mailako kooperatiba mugimendua, Mondragon Unibertsita-
tatea eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak ez dira gero ar-
talak 65.000 biztanle baino ez dituen ingurumarian. On-
dorioz, ulergarri da Eusko Jaurlaritzak zein Euskaltelek es-
kualde beronetan kokatu nahi izatea herri-ekimen eta ad-
ministrazio publikoaren arteko lehen esperientzia.

Erronkaren lehen urraspideak banda zabaleko azpie-
giturak eskualdean zehar barreiatzetik hasiko dira. Udabe-
rrian ekin eta bi urteren buruan enpresa, hezkuntza, osa-
sun, administrazio eta hiritarrentzako gainerako lehen
zerbitzuak garatu nahi lirateke.

Egitasmo honek praktikan jarrarazi nahi du «hiruga-
rren ingurua» (Javier Echeverría, *Los Señores del aire: Telé-
polis y el Tercer Entorno*, Bartzelona, 1999) delakoaren
iraultza eta, hain zuzen ere, Debagoiena eskualdea hiru-
garren inguru horren lekuko eraldatu nahi. Jakinaenez,
lehen ingurua Deba ibaiaren ibarretan barrena sortutako
naturgune eta nekazaritza-giroa litzateke; bigarrena, men-
deak joan eta mendeak etorri historian zehar egituratuta-
ko hiritarte industriatua; eta, hirugarrena, telematikak
erakarriko duen informazio-sare edo ziberraldea.

Euskal sarea, marraskiloa eta barea

Telekomunikabide eta Informazio Gizartearen gaietara
azken hogeitun urteotan kultur-saihetsetik hurbildu izan ga-
renok edukien garrantzia azpimarratu izan dugu beti.
Gaur egun, aldiz, ikastoletan hezitako euskal internautak
batez ere sarearen eskasiaz dira kexu. Zer pasatu da?

Gernikako Estatutuak erakarri zuen lehen Barne Sail-
buruak (1980), Luis Mari Retolazak, erabat defenditu
zuen sare fisikoa burujabetasunaren lekuko. Kultura Saila
eta EITB (1986), oster, gehiago arduratu ziren edukiez,
sareaz baino. Retolazaren ildotik, Jon Azua lehendakari-
ordeak (1991) erronka estrategikotzat jo zuen zuntz opti-
koa. Telekomunikazioak liberalizatu aurretik Euskalnet

sortu zuen (1993) eta 11.000 milioi pezetaren inbertsioak saretan eragin (1995).

Liberalizazioarekin batera eta Europako Batasunaren pribatizazio-mezuen bidetik, Juan Jose Ibarretxe lehendakariorde zela (1996), Euskalneten azpiegitura alokatu zitzaion Euskalteli, espainiar Estatu guztirako bigarren lizentzia lortu zuen Retevisionen eskutik sareaz ardura zedin. Baina, Europako Batasunak besterik itxaron arren, operadore pribatuak ez zuten zuntz optikotan nahi bezain azkar eta uste bezainbat inbertitu, eta etorkizuna antena, satelitea edo kablea izango ote zen zalantzartean, Telefonica bere azpiegitura zaharren aukerez baliatu da merkatu-eskariari erantzuteko: RDSLz lehenik, ADSLz gero.

Esperientziak frogatu du Europako Batasunari jaramonik egin ez dioten Estatuak, Finlandia kasu, kable-sare publikoa indartu dutela eta beronek erraztu duela Informazio Gizartearen zabalkundea. Datorren hilean aurkeztuko du Eusko Jaurlaritzak «Euskadi Informazio Gizartean» deritzan plana eta, edukien garrantzia ukatzeke, sarearen eronka izango du aurrez aurre.

Euskal Erkidegoari dagokionez, panorama honelatsu da: *Konekta Zaitetz* bezalako programak tarteko, merkatu eskaria uste baino gehiago hazi da. Azpiegitura tradizionalen jabe den Telefonicak ez du, oraingoz, zuntzik sartuko eta biztanlearen %95i ADSL sistema eskainiko dio aurten. Hurrengo hiru urteetan, Euskaltelek zuntza eskainiko dio biztanlearen %90i (lurraldearen %75i). Mapa honetan, hiritarrak ADSLz baliatuko dira telefonoz hitz egiteko, e-posta erabiltzeko eta arrunt nabigatzeko, eta zuntz optikoaz, berriz, eduki konplexuagoak jasotzeko, telebista ikusteko, multimedia eta eskaripeko bideoak eskuratzeko, eta etenik gabeko loturak behar dituzten zerbitzuetara iritsi ahal izateko.

Elektrizitate Gizartearen ildo beretik

Iazko urtea, ostera, 1990eko hamarkadan loratu eta txistu bizian goratu ziren *puntocom* enpresen gainbeheraka-

da-urtea izango da Ekonomia Berriaren prehistorian zehar. Oraindik ere erdiminetan dagoen sektore honen ekile eta eragileak irrikaz daude zain noiz egoera berriro koskortuko eta 2004-05etik aurrera (sasi?)adituek iragarritako aukera berriaren lur promestua agindu bezala helduko ote den. Baina zuhaitzek basoa ikusterik eragotzi ohi duten bezala, Informazio Gizartearen aitzakiaz komunikabideek eskaintzen duten durundiak ere gizarte berorren baitan gertatzen ari den musika isilarazten du.

Historiak frogatu du oker zeudela 80ko hamarkadan euskal ekonomi-jardueraren etorkizuna hirugarren sektorean kokatu nahi zutenak. Gaur jakina da euskal ekonomiaaren arrakasta era bateko zein besteko industri-prozesuei atxikia zaiela, indartuz etorri datorren zerbitzu-arloa inola ere arbuiazeke. Ildo beretik, sumagarri ere bada, euskal ekonomiaaren Informazio Gizartearekiko atxikimendua ez dela *puntocom* enpresa berrien sortzetik soilik etorriko, «betidaniko» industri-multzo osoaren digitalizaziotik baizik.

Orain dela ehun urte besterik uste arren, elektrizitatea ez da honezkero argindar-sortzaile, zerbitzu-operadore edo aparatu elektrikoen fabrikatzaileen negozio bakana, gizarte oso-osoaren oinarritzko baliabidea baizik. Orobat, Informazio Gizartearen garapena ez da sektore bereko enpresak indartzetik bakarrik etorriko, gainerako ekonomi-sektore guztiek hartaz egin beharko duten erabilpen orokor eta anitzetik baina.

Zentzu honetan, ia-ia oharkabean euskal industriak 2001 urtean zehar jorratu duen urraspidea erabat nabarrena da. Adierazgarritzat, bi datu baina ez. Batetik, Ekonomi Sustapenerako Euskal Kontseiluak onartutako lau proiektu estrategikoak (105,72 milioi euroren inbertsioa eta 1.634 lanpostu berri) teknologia berriak, informatikarako segurtasun sistemak, multimedia, telemarketing eta internet-zerbitzuak garatzeko izango dira. Bestetik, elektronika eta telekomunikazio-arloa izango da, automozio «tradizionalaren» ondotik, 2001eko laguntza publikorik gehien eskatu eta bereganatuko duen sektorea.

Funtsean, teknologia berriak, ikerkuntza, inbertsioa eta nazioartratze bidetik, hain zuzen ere Antton Perez de

Calleja azterlariak (*Coyuntura Económica. Informe anual 2001 y previsiones, 2001eko azaroa*) aurtengorako proposatutako zutoinetatik.

Telediaspora

Euskal diasporak nekez izan dezake hasiera jakinik baina euren burua erbesteratutzat jo zuten euskaldunon lehen atzemi-erakundea Montevideon sortu zen 1876an. Geroztik berrehun inguru dira munduan zehar zabaldutako Euskal Etxeak, eta hauetako lau besterik ez dira industri-azotarako ordezkari ofizial gisa lanean ari diren Euskal Institutuak.

Gehienbat kulturaz, politikaz edo herriminez jantzi-ta ehun urte luze iraun duen panorama hau erabat aldatu da azken hamarkadan, mundu-ekonomiaren zein informazio-gizartearen globalizazioaz. Gaur egun 739 dira Euskal Autonomia Erkidegoko euskal enpresen nazioarteko ezarpenak eta berauen kanpo-inbertsioa 36,55 milioi eurotik (1991) 1.358,97 milioi eurora (1999) pasatu da zortzi urte eskasotan, 12.000 milioi euroren esportazioak kontuan hartzeke. Arrantzale, misiolari edo iheslariak baino, enpresak dira gaur egun gure ikurrin eta enbaxada.

Informazio-teknologia berriak ez zaizkio arrotz kanpora begira jarritako ekonomia honi. Eusko Jaurlaritzak *Euskaldunak munduan* deritzan webgunea eragin bazuen betidaniko diasporari erantzuteko, urtarilean aurkeztu du Euskal Fundazioak www.basquewordnet delakoa, Joseba Intxaustiren ardurapean. Aldi berean, on-line jarri berria da nazioarteko ezarpenen esperientziak trukatzeko *Intersarea.net*; eta gero eta gehiago dira, atzerri-aberri, harat-honateko enpresa-intranet pribatuak, datuak eta planoak ez ezik, pieza eta tresnen irudiak ere bideokonferentziaz bertatik bertara bailiren ikusi eta aztertu ahal izateko.

Aldi berean, ETB SAT (Astra-Europa) eta Canal Vasco (Hispasat-Amerika) euskal irratitelebistaren eskaintzak ildo horretatik doaz. Ez dago oraingoz audientzia zehazterik,

baina jakinekoa da Ameriketara bakarrik hiru milioitik gora dira ETB kablez ikus dezaketen familiak. Zinez, Moravia-ko (Txekia) puntaren puntan Aretxabaletako emakume ingeniari bati eguneko euskal albisteen berri entzutea animagami da.


Telebitxikeriak

- Zakarretara botatzen diren telebista eta ordenagailu zaharkituen pantailetakoa beira birziklatuaz bitrozeramizko baldosak egingo dira Erresuma Handian eta Londresko Udaletxe berriaren zenbait aretotako lurzorua zolatuko. Lehen frogak ontzat eman dira dagoeneko eta kristal birziklatu berria erdigardena omen da itxuraz, ukiz labaingaitza, erabilpenez iraunkorra eta, eraikuntzan zein dekorazioan, guztiz baliagarria.

- Silicon Valleyko Palo Alto udalerrian «fibre-to-the-home» (FTTH) sarea jarriko da bertako 75 etxebizitzaren artean, audio, bideo eta datu-zerbitzuen abiada 60 bider gehitu ahal izateko, 7 Mbit segundoko alegia. Egitasmo honen helburua ez da azken-azken muturreko teknologia-rik aurreratuena opa izatea soilik, baita bezeroen kontsumoa neurtu eta auzoa zenbat ordaintzeko gertu ote dagoen jakitea ere. City of Palo Alto Utilities deritzan udal-enpresa publikoak faktura bakar batez eskaintzen ditu ura, gasa, argia eta zakarren bilketa eta, aurrerantzean, faktura berberorretan sartuko ditu zuntz optikoz eskainitako beselako aukerak ere.

- Sarri aipatu izan da e-merkataritzak mugak dituela. Hau da, liburuak edo erosteko ezin aproposagoa dela baina neurri egindako jantziak aukeratzeko, aldiz, arras desegokia. Hala ere, honezkero merkatuan da 3Dz lan egiten duen eskanerra, zeinek aurrez aurre bilutsik jartzen zaion bezeroaren soina 12 segundotan neurtzen duen eta datuok txartel elektronikoa batean noiznahi erabiltzeko gordetzen. Bezeroak pantailan ikus dezake bere alegiazko irudia, nahi beste jantzi probatu eta, azkenik, egokien jantzi era, tailu edo kolorea eskatu.

• Hainbat luxuzko etxe-ataritan aurreko hamarkadan jarria izan arren, bideotefonoak ez du orain arte arrakastarik lortu. Telefono mugikor gisa egokitua, ordea, telebista-kazetaritza alda dezake Afganistango gerratik aurrera. Bi mila euro balio ditu, ez du antenarik behar eta, batere telebista-kamerarik gabe, nonahitik albisteak zuzen-zuzenean emateko aukera eskaintzen dio tokian tokiko erreportariari. Nahiz eta oraindik irudia «pikortsu» samarra agertu, etorkizun joria opa diote kazetaritzan, medikuntzan zein irakaskuntzan.°



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jalgi.com